

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO-ARABAKO MENDIALDEA KUADRILLA

Arraia-Maeztuko, Bernedoko, Kanpezuko, Lagrango, Urizaharreko eta Haraneko udalerrietan hiriko hondakin solidoak biltzeko zerbitzuarengatik tasa, 2020koa, ordaindu behar dutenen erroldak. Behin-behineko onartzea eta borondatezko epean ordaintzeko aldia irekitzea

Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillak, 2020ko maiatzaren 26ko bilkuran, Arraia-Maeztuko, Bernedoko, Kanpezuko, Lagrango, Urizaharreko eta Haraneko udalerrietan hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzuarengatik tasa ordaindu behar dutenen 2020ko erroldak onartu zituen. Horiek horrela, errolda horiek jendaurrean jarriko dira, interesdunek aztertu eta, hala badagokio, egoki deritzeten ohar eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako 15 egun baliodun izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengotik aurrera.

Interesdunek Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitzan aztertu ahal izango dute espedientea. Helbidea: Gasteiz- Lizarra errepidea 7. Santikurutze Kanpezu (Araba). Orduetgia: 9:00etatik 14:00etara.

Zerga ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzean, errolda osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, halaxe xedatzen baitu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. paragrafoan. Dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke kuadrillako lehendakariari, ordaintzeko araututako epean edo epe hori bukatu eta hilabete igaro baino lehen.

Aipatutako tasa hori 2020ko uztailaren 30etik irailaren 29ra (biak barne) arteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango da borondatezko epean. Helbideratutako ordainagiriak 2020ko uztailaren 31an kobratuko dira.

Ordaintzeko modua eta tokia. Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko, baldin eta banku helbideraketako kontu bera badute, edo, aldatuta ere, aldaketa horren berri eman badute. Horrelakoetan, kuadrillak izango du ordainketa izapidetzeko ardura.

Ordainketa banku bidez helbideratuta ez daukatenek Vital Kutxan ordaindu ahal izango dute borondatezko epean, bankua zabalik dagoen bitartean. Horretarako, etxean jasoko duten jakinarazpen ordainagiria aurkeztu beharko dute. Jakinarazpen-ordainagiria jaso ez edo galtzen bada, kopia bat emango zaio interesdunari kuadrillako administrazio bulegoetan. Helbidea: Gasteiz-Lizarra errepidea, 7. Santikurutze Kanpezu.

Araututako epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera eta kobratu beharrekoari dagokion errekargua aplikatuko zaio, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2020ko ekainaren 16a

Lehendakaria

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA